



Arartekoaren 2015R-1500-15 Ebazpena, 2015eko abenduaren 15ekoa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatzen zaio Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegian defenda ditzala gurasoak espetxean dituzten eta beren tutoretzapean dauden adingabeen eskubideak.

Aurrekariak

LEHENENGOA.- Arartekora espetxean dagoen hiritar bat hurbildu zen, bere seme-alabei berarekin harremanetan jartzea saihesten zieten zailtasunez kexu. Seme-alabak 17 urteko mutil bat eta 6 urteko neska bat dira eta Arabako Adingabeen Kontseiluaren tutoretzapean daude, 2011z geroztik.

Kexagilearen askatasunik eza, zehazki, adingabeak tutoretza horretatik ateratzean eragin zuen erantzukizun penalarekin lotuta dago. Edonola ere, baieztatu duenez, Adingabearen Kontseiluak (aurrerantzean AK) seme-alabek beren amarekin komunikazioa izatea egokia zela ezarri zuen. Alabarekin hamabost egunero elkartuko zen eta semearekin, bere adina dela eta, haren irizpidearen arabera komunikatuko ziren. Adierazi digunez, goian adierazitakoa gorabehera, bere seme-alabek 10 hilabete daramatzate berarekin komunikatu ezinik.

BIGARRENA.- Pertsona adingabeen eskubideei buruz ari garenez, berehala jarri ginen harremanetan espetxearekin, kexagile espetxeratuaren eta bere seme-alaben artean benetan komunikazio hori saihesten zuten eragozpenak berretsi, eta, hala bazegokion, arintzen laguntzeko. Hala jakin genuen Espetxeko Zuzendaritzak erabaki zuela espetxeratuak bere bi seme-alabekin etorkizunean eska zitzakeen komunikazioak eteteko. 2015eko otsailaren 9an hartu zuen erabaki hori, urtarrilaren 5ean, kexagileak, oraindik ere prebentzio espetxean egonik, ukatuta ikusi zuenean familiarekin elkartzeko toki batera joateko eta bertan bere seme-alabekin komunikatzeko aparteko baimen eskaria. Bere askatasun eza dekretatu zuen Jarraibide Epaitegiaren ustez, ezin zen eskatutakoa eman, kexagileari akusatzen zitzaion delitua, hain zuzen ere, seme-alabak hartu izana baitzen.

Espetxeko agintarien komunikazio etendura hori erabaki zuten egunean bertan, espetxeratuak errekurtsua jarri zuen haren aurka, Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegian, eta, hark, era berean, Jarraibide Epaitegiaren esku utzi zuen gaia, horretan, esan bezala, kexagileak prebentzio espetxean jarraitzen zuelarik.

Hala ere, 2015/03/25ean, Arabako Probintzia Audientziak berretsi egin zuen, apelazio bidez, Zigor Epaitegiak kexagileari jarri zion kondena. Ondorioz, 15/06/02an, espetxeratuak beste idazki bat igorri zuen Bilboko Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegira, bere aurreko eskaria errepikatuz. Argudiatu zuenez, *“hasta ahora nos decían que estábamos de preventivas.....pero ya estamos como condenados, por lo que le ruego nos darían una solución”*.





Eskari hori ikusita, Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegiak beste espediente bat ireki zuen eta Espetxeko Zuzendaritzaren txostena eskatu zuen. Une horretan jo zuen interesdunak Arartekoarengana.

HIRUGARRENA.- Arartekoak Adingabearen Kontseiluaren (AK, ondoren) laguntza eskatu zuen, honako alderdi hauei buruzko informazioa eman zezan:

- AK-n amaren eta seme-alaben arteko komunikaziorako ezarritako araubidea: komunikazioaren deskribapena, horretarako arrazoiak, eta kexagilea espetxean sartu zenetik egon diren aldaketak.
- Amaren eta seme-alaben artean harremana egon ahal izateko aurkitu ahal izan diren zailtasunik, halakorik egon bada.
- Adingabearen Kontseiluak gauzatu dituen jarduerak, adingabeen interes gorena bermatzeko ezarritako komunikazio araubidea betetzen zela sustatze aldera. Zehazki, Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegiari ama espetxean egotearen ondorioz amaren eta seme-alaben arteko komunikaziorako eragozpenik ote zegoen jakinarazteko eskatu ote zitzaion jakin nahi izan genuen.
- Amaren eta seme-alaben arteko harremana sustatzeko aurreikusitako jarduerak eta aurreko gertaerekin lotuta interesgarri suerta daitekeen beste edozein.

LAUGARRENA.- Irailaren 29an, erakunde honetan foru erakundearen erantzuna sartu zen, irailaren 21ekoa bera. Bertan, AK-ek adingabeen tutoretza bereganatu zuela eta adingabeak egoitza harreran zituela berretsi zuen. Azaldu zuenez, tutoretza bereganatu zuenetik, esku-hartze plan bat diseinatu zuen, eta, haren arabera, hainbat komunikazio araubide ezarri ziren gurasoen eta seme-alaben artean, 14/12/10ean, 15/01/22an, 15/02/09an eta 15/17/13an. Helburua amaren, aitaren eta seme-alaben arteko loturari eustea zen, harremanak apurka-apurka maizago izateko asmoarekin. Halaber, Kontseilua komunikazio hori espetxetik kanpo egitearen alde agertu zen, betiere espetxeko araubideko funtzionamenduaren baldintzapean eta espetxeen lege eta araudien arabera.

Emandako azken ebazpenari dagokionez, 2015eko uztailaren 13koa bera, bisita araubide berezia ezarri zen adingabeen gurasoak askatasunik gabe zeuden aldi zehar, eta, denbora horretan, telefono bidezko harremanak edukiko zituzten, Espetxeen Araudiaren arabera komunikazio horiek onartzen diren denbora eta moduan. Halaber, aurrez aurreko bisitak ere aurreikusi ziren eta horiek espetxearen kanpoan, esparru itxi batean egiten saiatzeko erabaki zen, berme nahikoa zuen sistema bat ezarri zitekeenean. Espetxe barruan bi seme-alabekin egin behar ziren bisitetarako, espetxeko edo epaitegiko agintarien baimena beharko zen. Maiztasuna honakoa litzateke:





- Alabari dagokionez, eta eskolan ahalik eta ondoen egokitu zedin, hamabost egunero ezarri zen bisita eta Adingabeen eta Familiaren Arloaren baimena izan beharko zuen, hilabete lehenago.
- Semeari dagokionez, 17 urtekoa bera, bere irizpidearen arabera komunikazioa izango zuten.

Bisita araubide hori kasu honen gaineko planak izango zuen bilakaeraren arabera aldatu ahalko zen, Adingabeen eta Familiaren Arloaren ikuskaritzapean. AK-ek erantzuna puntu honetan amaitzen zuen, honakoa aitortuta: *adingabeek "muestran un malestar importante puesto que llevan alrededor de 10 meses sin poder mantener un contacto presencial con sus padres y unos meses sin poder tener contactos telefónicos con ellos".*

Jarduera judizialei dagokienez, AK-ek jakinarazi zigunez, aurreko puntuan aipatu dugun aparteko baimena ukatu egin zen, 2015eko urtarrilaren 5ean Jarraibide Epaitegiak adostutakoaren arabera. Adierazi zenez, Epaitegiak ez zuen baimenik eman eskatzailea kartzelatik irteteko, bertan zegoen delitua, hain zuzen ere, bere seme-alabak hartzea izan baitzen.

Adingabeen eta Familiaren Arloa Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegira zuzendu ote zen ala ez galdetu genuenez, ez zuela hala egin jakinarazi zitzaigun, *une horretan ez dagoelako espediente judizialik zabalik, espetxeratuen eskubideak ustez urratu izanagatik, edo behitzat ez zaio erakunde publiko honi jakinarazi.* Edonola ere, adierazi zuenez, kasuaren ardura zeukan teknikaria familiarekin harremanetan zegoen etengabe, *"recabando información sobre estas dificultades en el cumplimiento del régimen de visitas e intentando establecer puentes de relación-coordinación con los técnicos de Instituciones penitenciarias para que, en beneficio e interés de los menores, se reanuden el régimen de visitas."*

AK-ek honakoa adierazi zuen, bere erantzunari amaiera emateko: *"En base a la reciente modificación en la Ley Orgánica 1/96 de Protección Jurídica del Menor y de la Ley Ordinaria 26/2015 de Modificación del Sistema de Protección a la Infancia y a la Adolescencia, que han tenido su entrada en vigor en el mes de agosto pasado, se va a articular una petición a la Dirección del Centro Penitenciario Araba para que se pueda dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 160 del Código Civil, recientemente reformado, y que prevé el reconocimiento a los hijos menores del derecho a relacionarse con sus progenitores, aunque no ejerzan la patria potestad y en caso de privación de libertad, siempre que el interés del menor lo recomiende, cuyo artículo concede la comunicación, con éstos debidamente acompañados, al centro penitenciario en el que se encuentren, incidiendo la nueva redacción del artículo 161 en que es competencia exclusiva de la entidad pública, la de establecer mediante resolución motivada el régimen de visitas y de comunicación respecto a los menores en situación de tutela o guarda, así como su suspensión temporal, informando de ello al Ministerio Fiscal. De esta manera, valoramos que Instituciones*





Penitenciarias removerá los obstáculos existentes para el ejercicio de estos derechos”.

BOSGARRENA: Erantzun hori ikusita, kasuaren gaineko interesa erakutsi genuen Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegian, espetxeratuak jakinarazi zigun kexaren ondorioz ireki zen espedientea ahalik eta lasterren ebazteko beharrezana helarazteko, adingabeen lehentasunezko interesari begira. Epaitegiak espediente hori irekita zegoela eta laster ebatziko zela berretsi zigun.

SEIGARRENA: Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegiak azkenean bere ebazpena eman zuen eta komunikazioen etendura altxatu zuen. Hala, bisita araubide bat ezarri ze, AK-ek 2015eko uztailaren 13an emandako ebazpenean azaldutako eran. Adingabeek ordura arte urtebete inguru zeramaten beren ama ikusi gabe.

Gogoetak

LEHENENGOA: Gure esku-hartzearen irismena eta xedea mugatzeko asmoz, hasteko, esan beharra dugu Arartekoak ezin duela kexagilearen eta bere seme-alaben arteko komunikazioa eteteko administrazioaren erabakiari buruzko adierazpenik egin. Bi arrazoik azaltzen dute hori: alde batetik, espetxeko agintariak erabaki zutelako, eta, horiek Barne Ministerioan sartzen direnez, gure kontrol eremutik kanpo daudelako; eta, bestetik, zalantzan jarritako administrazio jardueraren aurka egin delako Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegian, eta, horrek jurisdikzioaren eremutik kanpoko esku-hartze oro baztertzen duelako.

Espediente hau Arabako Foru Aldundiak AK-ek beren tutoretzapean dauden eta gurasoak espetxean dituzten adingabeen defentsa garatzeko egin duen jarduerari buruzkoa da. Horretarako, oinarrizko irizpide bat hartu dugu abiapuntutzat: Aldundiak bere kargurako haur eta gazteen defentsan jarrera aktiboa izateko beharrezana, beren eskubideen betearazpena baldintzatu dezaketen administrazio jardueren aurrean agintaritzara joz.

Kexagilearen seme-alaben tutoretzaren titular gisa, eta beren lehentasunezko interesari jarraiki, AK-ek amarekin komunikazio eta harreman erregularra izatea komeni zela adierazi zuen, laugarren aurrekarian adierazitako modu eta gertaeren arabera. Erakunde honen ustez, horrek betebeharrak bikoitza sortzen zuen zuzenbidean:

- Espetxeko agintariei zegokienez, irizpide hau kontuan hartu eta haztatzea, une bakoitzean egon zitezkeen gainerako faktoreekin batera, komunikazio horien etendurari eusteko edo etendura altxatzeko.
- Foru erakundeari zegokionez, auzitegien aurrean eskubide hori defendatzea, Legeak tutoretza duenari ezartzen dizkion betebeharrak betez.





Ondorioz, gure kontrol lana, edonola ere, azken alderdi horretara mugatzen da.

BIGARRENA: Aurrekarietatik ondorioztatu daitekeenez, kexagileak bi kexa aurkeztu zituen arrazoi honengatik Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegian. Lehenaren ondorioz, azken horrek Jarraibide Epaitegiaren esku utzi zuen gaia, haren arabera interesduna prebentzio espetxean egonik; bigarrenaren ondorioz, zigortu gisa aurkeztua, espediente bat ireki zen Epaitegi hartan, eta, esparru horretan, titularrak txostenak eskatu zizkion, bai espetxeari, bai AKri.

AK-ek Arartekoaren informazio eskariari erantzuten dion unean, espediente hori egoteak nahitaez baldintzatzen zuen bisiten araubidearen betearazpenean zailtasunak arintzeko saiakera oro. Ondorioz, harrigarria da bere erantzun idazkian AK-ek honakoa adieraztea: ez zekiela horren gaineko espediente judizialik zegoenik; are gehiago kontuan hartuta aldi berean esan zigula bere langileak etengabeko harremanean zeudela familiarekin, zailtasun horiei buruzko informazioa jasotzen.

HIRUGARRENA: Nolanahi ere, jarduteko betebeharra egongo litzateke, espediente hori hasi izan ez balitz ere, herri administrazioek adingabearen interesa defendatzeko erakutsi behar duten jarrera proaktiboaren ondorioz, are gehiago adingabeon tutoretza dutenean.

Tutoretza lanak adingabea zaindu eta babesteko betebeharra dakar, berau elikatu, hezi eta prestakuntza integrala emateko betebeharra. Laguntza moral eta materialeko betebeharrak horiek dituzten pertsonak falta badira edo pertsona horiek betebeharrak urratzen badituzte edo ez badituzte horiek era egokian betetzen, administrazioaren ardura da horiek betetzea eta berari eskatu behar zaio funtzio hori behar bezala bete dezala. Hala ondorioztatzen da Kode Zibileko 154. artikuluan eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Euskal Legeko 17. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hona hemen:

“Haur eta nerabe guztiek izango dute, beti, beren eskubideak defendatzeko eskubidea, beren kabuz, legeak uzten badie, edo beren legezko ordezkariaren bitartez, non eta legezko ordezkariak ez diren alderdi interesatu edo ez duten adingabearen interesekin bat ez datorren interesik; beste pertsona batzuen bitartez ere defenda ditzakete, baldin eta pertsona horiek, lanbidea dela-eta edo konfiantzazko harreman berezia dutela-eta, iritzia objektiboki eman badezakete. Bestalde, guraso-ahala, tutoretza edo zaintza beren gain duten pertsonak babestu eta zaindu egin beharko dituzte eskubide horiek, eta eskumena duten herri-administrazioek behar bezala erabiltzen direla begiratu behar dute eta helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren mekanismoak abiarazi”.

Adingabeen interesa defendatzeko, antolamenduan eskaintzen diren mekanismoak aktibatu behar dira, judizialak barne, beren eskubideen eraginkortasuna eragozten duten oztopoak ezabatzeko. Mekanismo horien artean dago Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegiarena, Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorreko 76. artikulua ematen dion eskumenaren arabera, honakoa hain zuzen ere: *espetxe*





araubidearen aginduak betez sor daitezkeen gehiegikeriak eta desbideratzeak zuzentzea. Kasu honetan, desbideratze hori zera izango litzateke: espetxeetako agintariek emandako komunikazio etenduraren eta komunikazio hori eustea adingabeen interesa zela zion AKren ebazpenaren artean zegoen kontraesana.

Egia da etendura horrek, era berean, Jarraibide Epaitegiak amari adingabeekin komunikatu ahal izateko eskatutako aparteko baimen bat ukatu ziola aipatzen zuela. Edonola ere, ezin da ahaztu baimena ukatzeko oinarria egotzi zitzaion delituaren izaera zela: aurrekarietan agertzen denez, adingabeak, eta, zehazki, komunikazio eskariaren xede ziren seme-alabak hartu izana zen epaitegiak bere erabakia hartzeko jarraitu zuen irizpidea. Ildo beretik, espetxeetako agintariek ama eta seme-alaben arteko komunikazioak eteteko erabaki zuten eta horrek, batez ere, adingabearen interesa babestea nahi zuten, legitimoki eraturako tutoretzatik ateratzean, interes horren kontra egin baitzuen.

Hala ere, AK-ek emandako informazioaren arabera, Epaitegiaren ustez ez zen bidezkoa gurasoak espetxetik irtetea beren seme-alabak ikusteko, baina ez dio ezin zirenik gurasoak espetxean bisitatu edo beraiekin telefonoz hitz egin. Eta, edonola ere, nahiz eta AK-ek ezagutzen zuen ebazpen horren edukia, bai eta egindako delituaren izaera ere, ez zuen kaltegarritzat jo bere tutoretzapekoek beren ama bisitatzerik. Are gehiago, 2015eko uztailaren 13ko ebazpenean adierazitako eran, komunikazio horri berriz ekiteko gomendatu zuen, hain zuzen ere, adingabeen interesa defendatzeko eta beren tutoretza betetzeko.

Horrekin bat eginez, tutoretza erakundeak interes horren alde jardun behar zuen Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegian, berau baitzen interes horren eraginkortasuna saihesten zuen administrazio neurria berrikusteko ardura zuena, kondenaren irmotasuna abiapuntutzat hartuta.

LAUGARRENA: Azkenik, AKren erantzunean agertzen den Kode Zibilaren aldaketa aipatu behar dugu, berau hartu nahi baita oinarriztat Espetxearen zuzendariari eskari bat egiteko, 160. artikuluan berri xedatutakoa bete dadin. *Artikulu horrek, izan ere, seme-alabek adingabeei beren gurasoekin harremanak izateko eskubidea aitortzen die, guraso ahala betetzen ez denean edo askatasunik gabe daudenean ere, betiere adingabearen interesak hala gomendatzen badu. Artikulu horrek komunikazio aukera ematen dio, adingabeak behar bezala lagunduta daudela, gurasoak dauden espetxean. 161. artikulua idazkuntza berriak berriaz azpimarratzen du erakunde publikoaren eskumen eksklusiboa dela ebazpen arrazoituaren bidez bisita eta komunikazio araubidea ezartzea, tutoretzapeko edo zaintzapeko adingabeei dagokienez, bai eta behin-behineko etendura ezartzea ere, horren berri Zerga Ministerioari emanda.* AK-ek iradoki duenez, horrek araudi euskarri bat ematen dio, lehen ez zuena, eta, horren arabera, espetxeetarako agintariei eskatu ahal zaie adingabeen eskubideak betearaztea eragozten duten oztopoak ezabatu ditzatela.

Erakunde honen ustez, hala ere, nahiz eta artikulua horietan egindako aldaketak hobekuntza bat ekartzen duen, hobekuntza hori ez dator tutoretza





erakundearentzako eskumen berriak ezartzetik, ez eta adingabeei lehendik ez zituzten eskubideak aitortzetik; bi alderdien harira aurretik indarrean zegoen araudiaren interpretazio teleologiko eta sistematikoaren ondorioz indarrean zeuden irizpideak argi eta garbi adierazten dituela da alderdi positibo nagusia.

Horren harira, eta 161. artikuluari dagokionez, egia da idazkuntza berriak foru erakundeak bisitak eta komunikazioak egiteko eta etendura ezartzeko duen eskumena aipatzen duela. Hori bai, lehen ere AKren ardura zen komunikazio araubide hori ezartzea (eta, beraz, halaxe egiten zuen, laugarren aurrekarian dioen bezala, kexagileari eta bere seme-alabei zegokienez), eta, edonola ere, araudi berria ez litzateke eragozpen izango espetxeetako agintariak, Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 51. artikulua arabera, AKrekin ezarritako komunikazioak mugatu, aldatu edo eten ditzaten, kasu honetan egin duten bezala.

Kode Zibileko 160. artikulua aldaketari dagokionez, gurasoen eta seme-alaben komunikazioaren aurrean duen ikuspegia aldatu egiten da, adingabeen eskubide gisa aipatzen baitu komunikazioa, irizpide onari jarraiki. Baina, nahiz eta aurreko idazkuntzan zegoen ikuspegia gurasoen eskubideetan oinarritzen zen, egia da, era berean, eskubide horiek seme-alabek beraiekin komunikatzeko zuten eskubidearekin lotuta zeudela. Ez hori bakarrik; horrez gain, adingabeen eskubideen eta beren interes gorenaren arabera interpretatu behar ziren 160. artikulua zaharrak guraso ahala betetzen ez zuten aita eta amei aitortzen zizkienak.

Gauza bera esan daiteke Zigor Kodeko 160. artikulua berriak administrazioaren betebeharrari buruzko erreferentzien gainean, hots, adingabeei beren gurasoak bisitatzeko erraztasunak jartzeko betebeharrari buruz, beren interes gorenak hala gomendatzen duenean. Betebehar hori lehendik ere bazegoen, bisita beharrezkotzat jotzen bazen interes horren harira, arreta emateko beharrezkoak agintari publiko guztiak lotzen baititu.

Halaxe dio Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak, Espainian 1990ean berretsi zenak. Lehen artikuluek, hain zuzen ere, haurren gaineko erakunde jardura guztiek bete behar dituzten oinarritzko printzipioak ezartzen zituen orduan ere, eta horien artean adingabearen interes gorena gailentzen zen. Ildo beretik mintzatu zen Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordea, 14. ohar orokorrean.

Bestalde, uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren bidez aldatutako Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak berretsi egiten du adingabearen interes gorena zaindu behar dela administrazioaren jardura guztietan. Horren adibide da bere 2.1 artikulua, honakoa dioena:

“Todo menor tiene derecho a que su interés superior sea valorado y considerado como primordial en todas las acciones y decisiones que le conciernan, tanto en el ámbito público como privado”.





Gainera, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoko 11.2 a) artikulua zuzenean eta zehatz-mehatz adierazten du honakoa:

"Serán principios rectores de la actuación de los poderes públicos en relación con los menores: La supremacía de su interés superior".

Azkenik, Lege horri aipamen argia eginez, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 4.1 artikulua honakoa dio:

"Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bermea izango dira gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haiei buruz hartzen dituzten erabakien eta gauzatzen dituzten jarduketak guztien oinarritzko printzipio gidariak. Orobat, haur eta nerabeekin zerikusituz zuzen duten jarduketak publiko guztietan aintzat hartuko dira printzipio horiek, eta, zehazki, epaileek, herri-administrazioetako agintariek edo haur eta nerabeak zaindu eta babesteko erantzukizuna duten erakunde publiko edo pribatuak hartzen dituzten erabaki guztietan".

Amaitzeko, ezin da ahaztu Konstituzio Epaitegiaren maiatzaren 29ko 141/2000 epaiak honakoa adierazi zuela bere bosgarren oinarri juridikoan:

"La Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño (ratificada por España por Instrumento de 30 de noviembre de 1990) y la Resolución del Parlamento Europeo relativa a la Carta Europea de los Derechos del Niño (Resolución A 3-0172/1992 de 8 de julio), conforman junto con la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero de Protección Jurídica del Menor, vigente al tiempo de la Sentencia de apelación, el estatuto jurídico indisponible de los menores de edad dentro del territorio nacional, en desarrollo de lo dispuesto en el art. 39 CE, y en particular, en su apartado 4. A estos efectos, el estatuto del menor es, sin duda, una norma de orden público, de inexcusable observancia para todos los poderes públicos".

Hori guztia dela eta, pentsatzekoa da adingabearen interes gorenak, kexagilearen eta bere seme-alaben arteko komunikazioak eten ziren unean, interpretazio irizpidea eta prozedura araua osatzen zituela eta herri administrazioen erabaki guztietan zaindu behar zela.

BOSGARRENA: Ezin da ulertu, beraz, Zigor Kodeko 160 eta 161. artikuluen idazkuntza berriak kexagilearen seme-alabei lehen ez zuten eskubide bat ematen dienik. Eta eskubide hori betearaztea, epaitegien laguntza eskatuz, beharrezkoa balitz, abuztura arte indarrean zegoen araudiaren arabera tutoretza osatzen zuten betebeharren artean zegoen.

AK-ek ez zuen egin, eta, erakunde honi adierazi zionez, ez zekien espediente judizial bat irekita zegoenik, nahiz eta, azkenean, espetxeetako agintariek





dekretutako komunikazio etendura ondorerik gabe uztean, adingabeen eskubideak benetan betetzea eragozten zuten oztopoak ezabatzea ahalbidetu zuen. Edonola ere, kontua da seme-alaba horiek urtebetez amaren eta beren arteko komunikazio eskubidea urratuta eduki dutela eta berau berreskuratzea, AKren ustez, beharrezkoa zela, beren interes gorenari begira, eta egoera horrek "ondoez nabarmena" eragin diela tutoretzapekoei.

Ondorioz, nahiz eta Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegiak azkenean konpondu egin duen kexagilea Arartekora etortzea eragin zuen arazoa, gertatukoak hausnarketarako bidea ireki beharko lioke foru erakundeari, kasu zehatz honetan izan duen jarduerari buruz, bai eta, orokorrean, Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegiaren esku-hartzea eskatzeko beharrianari buruz ere, gurasoak espetxean dituzten eta beren tutoretzapean dauden adingabeen eskubideen alde, eskubide horiek eraginkortasunez betetzea eragozten duten oztopoak ezabatu behar direnean.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arabako Foru Aldundiko Adingabeen Kontseiluari, jarrera proaktiboz defenda ditzan gurasoak espetxean dituzten eta beren tutoretzapean dauden nerabe eta haurren eskubideak, Espetxe Administrazioaren aurrean, horretarako, beharrezkoa bada, Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegiaren esku-hartzea eskatuta.

